

ELKARRI MOKOKA: Pello Azpirotz eta Andrea Etxarri **OREKA OSASUNTSUA:** Nere Sotil
ERREPORTAJEA: Xanti Begiristain Madotz **KUXKUXEAN:** Iraileko zorion agurrak

Ikusi
hemen
Mailope



Zirt - zart nork azkarrago!



Luis Mari Larreta (Aldatz)
Bertso berriak
 Mailoperi jarriak



Eskualdeko herri gehienetan dagoeneko ospatu dituzte festak eta aurtien ere herriz herriko irudiak bildu ditugu.

Bidaliezaguzu zure lagunekin nahiz senideekin uda honetan ateratako argazkia!



Denonartean Argitaletxeak eskainitako liburuak zozketatuko ditugu.

04> Iritzia

08> Luze: Leire Aranburu



10 > Xanti Begiristain Madotz

Oraingoan Mailopeko kolaboratzaile eta laguntzaile fina dugun Xanti Begiristain elkarrizketatu dugu. Euskalgintzan, musikagintzan, politikagintzan eta kulturgintzan egindako ibilbidearen errepaso egin dugu berarekin.

15> Nor da nor?: Argazki zaharrak gogora ekarriz.



18 > Anttoni Martinikorena

Errazkingo Anttoni Martinikorenak gaztetan bihotzeko baten ondorioz izan zuen garun lesio baten ondoren gauza asko eta asko hasieratik ikasi behar izan zituen. Egun eskulanak egitea da bere zaletasun handienetako bat.

23> Erreportajetxoak: Festak.

24> Kultura: Artisautza azokak.



25 > Hitz aspertuan

Gure euskalkiari aldizkarian merezi duen lekue emateko egiten ari garen saiakeran beste atal berri bat jarri dugu martxan. Azkarateko Agurtzane Altunak gure bazterretako hainbat eta hainbat kontu eskainiko dizkigu euskalkiari bere txokoa emanaz.

26> Kirola: Nafarroako Ingude Txapelketa.

28> Oreka osasuntsua: Ongi gosaltzen duzula uste al duzu?

31> Kontu txikiak: Agenda eta Merkatu txikia.

32> Kontrazala: Jaietako egitarauak.



Eusko Jaurlaritzak, eskualdeko Udal, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Mailope doan banatzen da honako herrietan:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugi, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

Argitaratzen du: Mailope Kultur Elkarteak.

L.G.: NA 719/93

Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.

issuu.com/mailopealdizkaria

ERREDAKZIOA: Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Ainhoa Iriarte, Itziar Luri, Arantxa Mikeo, Nerea Urbizu eta Andoni Tolosa.

ARGAZKIAK: Labrit, Juan Antonio Garaikoetxea, Agurtzane Altuna, Xanti Begiristain, Nere Sotil, Javier Irigoien, Unai Ijurko eta Eider Irastortza.

PUBLIZITATEA: Labrit Multimedia - 948 210 103 - mailope@labrit.net.

MAKETAZIOA: Mikel Azpilikueta.

TIRADA: 1.600 ale.

Basajaun

Martinek, begiak itxi eta gozo jaso zuen eguzkiaren epela aurpegian. Bere aurrean laino-itsaso trinkoa, bertan osteratxo bat egiteko gonbita eginaz. Ordubete bazen eguzkiak goia hartu ziola lainoari, eta Martinek bere buruari gogora ekarri zion azkenaldian, 92 urte bizkarrean, beti galtzen zuela eguzkiari egiten zion erronka. Joana zen, joana, garai hura; lasterketa irabazi eta laino-itsasoan paraturik eguneko lehen izpien zain izaten zena. Malloak janzen zituzten lehen izpi horien zain. Ogibide zuena bezalaxe, joana.

Martin Araitz bailarako azken artzaina zen. Bailara orduantxe hasiko zen esnatzen, urduri, hor behean. Martinentzat, halakotan, garrantzitsua zen eguzkiarekin batera ernatu eta lainoaren gainera egitea. Halako egunetan bailara ikusezin egiten zen, eta itsasoaren gainetik Aralarko mendi batzuen tontorrek ikus zitezkeen; harkaitz- eta zuhaitz-gaztelu gisa. Guztia hasi zeneko garaira eramaten zuen Martin, izena duen guztiak izana duen arora.

Gazteek galdu egin zuten agureekin mintzatu eta haiekin so egiteko dohaina.

Inoiz, gazte batzuek adi entzuten zuten Martin Basajaunehizketan, baina hura bisitatzera joateko proposatzen zienean zorotzat jotzen zuten, mitologia-ipuinak aintzat hartzen zituen agure sinesbera bailitzan.

- 4 -

Behin, gazte batek 400 urteko Haritzondo zaharrarengana lagundu zuen Martin. Bertan bizi omen zen Basajaun. Astebete eman zuten han inguruan artaldearekin, larrean bazka izan zen artean. Gauero, Martin saiatzen zen gazteari azaltzen Basajaunek egunez helarazitakoa, baina gazteak ezin zuen Haritzondo zaharraren arima sentitu, ez zen gai bailarako azken Basajaunaren arima ikusteko. Martinek, bizkarra Haritzondoan bermaturik, garbi jasotzen zituen haren mezuak; zer zen bidezkoa eta zer neurrigabea.

Berandu zekarren negua. Basajaun zaharra zen hori zekien bakarra eta horregatik eutsi zien berde hostoei, gainontzeko zuhaitzak aspaldi biluztu ziren arren.

Bada zerbait, esan zion Martinek gazteari. Sekula ez zuen Basajaunek horrenbeste ezkur izan. Asko hil egingen da. Uste dut gerra bat datorkigula.

Egun batzuk beranduago gaztea bailarara itzuli zen. Martin zahartu egin zela pentsatzen zuen, geroz eta makurrago zegoela. Eta Martin larriturik izan zen hurrengo dezente egunean, bai bai-

zekien Basajaun sekula ez zela tronpatzen, eta Herio gertu zebilela.

Zorionez, bailarara jaitsi zenean, janari bila, guztia ulertu zuen. Zetorkiena ez zen pertsonen arteko gerra, baina espezie baten deuseztapena. Bide bazterreko zuhaitz zendu pila. Arima baratzea. Egurketariak neurritz kanpo eta bereizi gabe ari ziren zuhaitzak botatzen, inguruko altxor handiena hustuaz. Bailarako iturri eta birrikak, sasi eta zapar eremu mortu bihurtzeko bidean.

Horregatik, Martinek, artzain lana albora utzita, bildu ahal izan zituen ezkur guztiak ereiteari ekin zion. Saiatu zen gainontzekoei Basajaunen mezuaren berri ematen, baina inork ez zion kasu egin nahi izan. Inork ez zuen ulertzen baso-berritzea derri-gorrezkoa dela, osaba zaharra bailaratik joan ez zedin.

Bizitzaren oparotasuna haranean bititzen jarraitzeko, galdutakoa berreskuratzea zela bide bakarra.

Bide horri eustekotan, bi belaunaldi nahiko zirela guztia galtzeko. Basajaunek esan zion, eta Basajaun, hasiera-hasieratik, inoiz ez da tronpatu.

Juanjo Elola (Ximonek euskaratua).

JoandakoakGogoan

“Zuhaitz bezala lurrean, kantuak bezala haizean...”

Bidali zure heriotz-agurra mailope@labrit.net e-postara edo dei ezazu 638 652 339 telefono zenbakira eta agurtu itzazu zendatutakoak aldizkariaren bitartez.

(Dohako zerbitzua).



asegurogintza
aseguru
aholkulariak
**Zure ondarea
eta segurtasuna
babesteko modu
bakarra behar bezala
aseguratua egotea da**
Telefona: 943652220. asegurogintza@aseguroak.net
Lizardi Olerkaria 1, 20400 Tolosa

Egin zaitetz bazkide!!

BIDEGOXO JATETXEA
Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak
Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com

Bi lagun

Istoria batek kontatzen du, bi lagun basamortuan barna zihoazela oinez, neska eta mutila. Bidaiaren lekuren batean eztabaidan hasi ziren, eta bietako batek zaplazteko bat eman zion besteari. Minduta, baina besteari deus ere esan gabe, desertuko hondarreen zera idatzi zuen: "Nire lagunik hoberenak gaur belarrondoko bat eman dit".

Oinez jarraitu zuten oasi bat topatu zuten arte, eta han bainatzea erabaki zuten. Lehen, matrailekoa hartutako neskatxa itotzen hasi zen, baina bere lagunak salbatu zuen. Indarberritu ondoren, neskatxak zera idatzi zuen harri batean: "Nire lagunik hoberenak gaur bizia salbatu dit".

Neskatxa jo eta salbatu zuen mutilak, honako hauxe galdetu zion bere lagunik hoberenari:

-Min eman dinadanean hondarreen idatzi dun, eta orain, ordea, harri batean. Zergatik?

Neskatxak erantzun zion:

-Norbaitek min ematen digunean, hondarreen idatzi behar diagu, barkamenaren haizeek ezabatu ahal dezaten. Baina norbaitek guretzat zerbait on egiten duenean, harriaren grabatu behar diagu, inongo haizerik ezabatu ez dezan.

"Ikas ezazu zerorren zauriak hondarreen idazten eta zorioneko kontuak harriaren zizelkatzen".

Esaten dute minutu bat kostatzen dela pertsona berezi bat aurkitzea, ordubete estimatzea, egunbete maite izatea, baina bizitza oso bat ahaztea. "Har ezazu denbora bizi izateko".

Itzulpena: Xanti Begiristain Madotz, Iruñea.

iragarkiTauLA

NAFARROAKO IPARRALDEKO EUSKARA MANKOMUNITATEA

Euskara ikasleentzako diru laguntzak: oinarriak

Diru laguntzaren gaiak. Diruz lagunduko dira 2015eko irailaren 1etik 2016ko abuztuaren 31ra arte egindako ikastaroen matrikula (estentsiboak, trinkoak, barnetegiak, informatika bidezkoak, eta oro har Balorazio Batzordeak onesten dituenak). Diru laguntzaren zenbatekoa gastuaren %50ekoa izanen da gehienez ere (ikasturtean zehar langabezia egondakoentzako %100ekoa). Kilometrajea, egoitza eta otordu gastuak ez dira diruz lagunduko.

Dena den, diru laguntzaren onuradunek ezin izanen dute 652,00 euro baino gehiagoko laguntzarik jaso deialdi bakoitzeko.

Eskabideak aurkezteko epea deialdia argitaratzen denetik 2016ko irailaren 15era bitartekoa izango da.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa: eskabide ofiziala beteta; eskatzailearen nortasun agiriaren kopia; erroldatze ziurtagiria; euskaltegiak eginiko asistentziaren edo aprobetxamenduaren ziurtagiria; matrikularen ordainagiria; langabeek Seguritate Sozialak emandako bizitza laborala izeneko agiria edo SEPEk egindako ziurtagiria; euskara ikasten ibili diren tartean langabezia egon direla adierazten duena, aurkeztu ahal dute, mankomunitateak, inguruabar horri begira, diru-laguntzaren zenbatekoa kalkula dezan. Ez da langabeziaren txartelaren fotokopia ziurtagiritzat onartuko.

Hona helbidea:

Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea
Larraungo Udala
Aralar, 5
31870 Lekunberri
Telefonoa: 948 504400

Baldintzak:

- Diru laguntza jasotzeko gutxienezko asistentzia edo aprobetxamendua % 80koa izango da.
- Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea osatzen duten herrietan erroldatua egotea.
- Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatearekiko zerga betebeharrak ordainduta izatea.

Bertso berriak.

Mailoperi jarriak

Luis Mari Larreta (Aldatz)



*Bi begiradek sua
Sortzen dutenean
Denbora geratzen da
Instante batean
Tximeletak ugari
Saltoka barnean
Hala da maitasuna
Normal normalean.*

*Alliko kirol festak
Nolako dizdira
Jende jator ugari
Gustora begira
Ondare taldek oi zun
Aspandin desira
Hala jarraituz gero
Goaz urrutira.*

Igor Mitxausentzako puntua:
Ongi joan al zaik udara?

Oinak:
Bakarrik, beharrik, egarrik, izarrik.



Doinua: Behin batean Loiolan.

- 6 -



INGURUMENA ZAINDUZ

Araizko Udalak deituta joan den uztailaren 9an erreka garbiketa egin zen auzolanean. Eguraldiak lagunduta 25 lagun elkartu ziren eta giro ederrean gaztetxoek ere zabor bilketan lagundu zuten.



SAGARDO EGUNA

Sagardoaren Eguna ospatuko da irailaren 25ean Lekunberrin. Nafarroako sagardogileen aurtengo uztaren sagardoa dastatzeko aukera izanen da bertan eta urtero bezala Baztango kirikoketalariak euren erakustaldia eskainiko dute.



IKKIER ITURRIA BERRIRO MARTXAN

Uztailaren 23an Ondare kultur taldeak Mugiron auzolana antolatu zuen duela 27 urte Euskal Herriko errotarien omezez sortutako Ikkier iturria berriro martxan jartzeko.

Iturria Mugiroko antzinako Ikkier errotako harriek osatzen dute eta belardian bertan merendu tokia osatuz ikusi daitezkeen alper harriak Apezenea eta Domikenekoak dira.

Zezenketak bai ala ez?



Pello Azpirotz

lepa, zer moduzko uda ari zarete pasatzen? Oraingoan sanferminekin loturik dagoen gai batez hitz egingen dut. Zezenketen kontuaz ari naiz, noski. Zezenketak gure inguruko jai askoren parte dira eta gehiengoak normaltasun osoz bizi ditu.

Hasieratik argi utzi nahi dut ni zezenketen aurka nagoela. Basakeria bat iruditzen zait gizakiak bere entretenimendurako animalia bat horrela torturatu beharra (zalan-

tzan jartzen dut nola kontsidera daitekeen bizi garen gizartea gizarte zibilizatu bat, horrelako astakeriak egiten jarraitzen den bitartean). Askotan esan didate iruindar askok, beraiak

“Basakeria bat iruditzen zait entretenimendurako animalia bat torturatu beharra”

zezenketetara doazela zezen-plazan oso giro ona dagoelako eta ia ez diotela kasurik egiten zezenari gertatzen zaionari, nahiz eta zezenketen oso aldeko ez izan. Gure kulturaren oso barneratua daukagun ohitura bat da eta noski gehiengo mantentzearen alde dago.

Pertsona askok argudiatzen du tradizioaren parte dela, eta nik galdera hau egin nahiko nieke: Tradizioaren parte izateak esan nahi du aldatu ezin den gauza bat dela? Badakigu Afrikako herrialde askotan ablazioa egiten dela eta tradizioaren parte delako hori egiten jarraitu behar al da? Niregatik balitz aspaldi kenduko nituen zezenketak Iruñean, nahiz eta jende asko nirekin haserretuko litzatekeen (badakit oso zaila izan litzatekeela aldaketa hori gertatzea). Askok esanen zidaten: Baina, sanferminak zer dira zezenik gabe? Nik uste dut Iruñeko jai eredu aldatu behar dela eta horretarako ezinbestekotzat jotzen dut zezenketekin bukatzea (entzierroa ere ez dut oso ongi ikusten, egia esan).

Sanferminen inguruan ari naiz batez ere, baina leku guztietan kenduko nituzke, ohitura basati honen antzeko asko. Espero dut etorkizun ez oso urrun batean zezenketak jada lehenaldiko gauza bat izatea soilik. Zer moduz uda Andrea?

Aupa Pello! Zer moduz? Espero dut ateratzen diren gau goxoez disfrutatzen egotea eta erlaxatzeko tartea ere hartzea. Ni hortxe nabil, ikasketak amaitzen udaz la-saiago gozatzen hasteko. Bai, egia da, nahiz eta zenbait aspektutan aurrera joan garen, sanferminak zezenen inguruan ospatzen diren jaiak direla oraindik ere.

Batetik, nik zezenketak eta entzierroa banatuko nituzke, ez dut uste parekoak izan daitezkeenik. Bai, egia da bietan zezenak aztoratzen direla, baina helburua ez da berdina, eta horretan jarri beharko litzateke arreta. Arrazoi duzu, tradizioa ez dela zertan beti ona izan, eta beraz aldagar-



Andrea Etxarri

“Erromatarren garaian izaten ziren gladiadoreen ikuskizunen antza hartzen diet”

ria izan beharko litzateke, gizartearen onerako eta gizartearen balore berrietara moldatuz. Beraz, oraindik ere aisialdi aukera bezala animaliak sufritzen hiltzen ikustea jaietako ikuskizunen barne sartzeari nahiko basatia dela iruditzen zait. Denboran aurrera egin izan ez bagenu bezala, erromatarren garaian izaten ziren gladiadoreen ikuskizunen antza hartzen diet.

Bestetik, nik uste, bai zezenen bai beste animalien inguruko babesa geroz eta handiagoa dela gizartean, nahiz eta oraindik ere zenbait basakeria gertatzen diren. Jendeari galdetuz gero, niri barne, orokorrean, nabaria da kontzientziarioa handiagoa dela, eta hausnartzen jartzen direla nabaritzen duzu, horrelako gauzek zentzurik ba ote duten haien buruari galdetuz. Gauzak, alderdi horretatik begiraturaz, hobera doaz, mantso baina aurrera.

Hala ere, sanferminetako gaiarekin erlazioan, bi gauza aipatu nahiko nituzke. Lehenik, batzuetan animaliekiko defentsa hori desitxuratu ere egiten

dela, diotena hain muturrekoa izanda koherentzia mantentzea ezinezkoa izanik. Bestetik, azken aldian entzundako berrien harira, sanferminetakoak barne, zaindu beharreko lehen animaliak gure inguruko horiek direla esanen nuke, bi hanka eta bihotza dutenak.





Leire Aranburu

LUZE

Arnastu

Askotan galdetu izan didate euskaldun izatea niretzat zer den, niretzat euskaldun izatea ez da geografia kontua, ez da muga batzuen barruan mugatutako eremuan bizitzea, ni euskalduna naiz, bertan nahiz kanpoan. Ez da hizkuntza kontua bakarrik, egia esan, hizkuntzak ez nau egiten, arbasoen lanagatik errespetu eta beraienganako sentitzen dudan miresmen eta maitasuna sentitzea da niretzat euskaldun izatea. Ez da ukitu dezakedan zerbait, sentimendu bat da. Eta oraindik ere ez baduzu oso argi, Aner Ansorenak egin duen azken film laburrean ikus dezakezu... Nik gaurkoan hemen utziko ditut bertan esaten diren hitzak, berriro ere lan honetarako ni kontuan izan nauzula eskertuz, milesker Nertxu!

Arnastu...

Gogoratzen dut lehen aldiz ikusi zintudan eguna, ez nekien askorik zutaz baina ipuin zoragarri bat zirudien.

Gauza asko aldatu dira orduetik, orduan ez jakina nintzen, ahula, beldurtia. Zu ezagutu aurretik ilun zegoen dena, begiak ireki eta dena berria balitz bezala ikusten nuen, baina iluntasun hori pixkanaka zureganatuz joan zinen, nire beldurrak garaitu zenituen, zalantzekin jostaketan hasi eta garaile atera zinen, itzalen lagun egin. Ni zurekin batera hazi egin nintzen, sentitzen erakutsi zenidan, ikusten, entzuten, dastatzen, usaintzen... Berdin zion zenbat aldiz erori edo kexatu nintekeen, zu beti hor zinen.

Ez ziren gutxi izan desadostasun eta liskarrak. Niretzat askatasuna besterik ez zenuen nahi. Zuri esker indartsu egin nintzen eta nire nahi eta ametsen agintari bilakatu. Ni baino ederragorik ez zegoela erakutsi zenidan eta ausart bihurtu nintzen.



“Arbasoenganako maitasuna sentitzea da niretzat euskaldun izatea”

Ausartegia agian, gizartean beste bat gehiago besterik ez, arruntak eta berdinak denak. Munduaren jabe ginela uste genuen eta ametsen agintari zena esklabo bilakatu zen. Alde batera utzi zintugun, bizkarra eman, zutaz ahaztu ginen. Bakardadean murgildurik geratu zinen.

Erlazioa hoztu egin zen, hoztu egin genuen, lotuta mantentzen gintuen soka askatu genuen. Gugan bakarrik pentsatu genuen zure sentimenduak ahazturik. Pixkanaka nor ginen ahazten joan ginen, ia konturatu gabe itsasoko ur tanta bihurtu ginen, bere harropuzkeriak itsaso hondora bidali dituen ur tantak.

Aitortu nahi dizugu asko izan direla zure laztanak behar izan ditugun uneak, asko beste baten besoetan egon eta zure besarkadetan pentsatzen egondako aldiak, zure lurrekin, zaporeekin, kantuekin, paisaia nahiz lurrinekin amestutitugun gauak. Bat-bateko ekaitzak nahiz zeru grisak ikustearekin bakarrik zoriontsu sentitu garen momentuak.

Nazkatu gara zugeanako miresmena ezkutitzeaz, zugeanako maitasuna sentitzegatik zapalduak izateaz. Zure gailurrik altuenera igo eta ozen egin nahi dugu garrasi, zure kostetako olatu bakoitzarekin mezua bidali. Munduarentzat txikia izanen zarelako baina guretzat arnasa zarelako.



Ukatutako sentipenak eta izaerak

Kaixo irakurle. Udaratik bueltan gatoz jada. Izaera “askeagoa” izan dugun honetatik, berriro kurtsoko izaera “hertsia” hartzeko garai honetara. Gustura hartzen dira ere errutina batzuk ezta? Baldin eta errutina horietan oreka guztiak sartzen baditugu, lana eta aisia, poza eta pena, lagunarteak eta bakardadea... baina beno, zeharka hasi naizen arren, joan gaitezen egun landu nahi dudana gaira.

Aipatu izan dizudan bezala, gorputzaren eta mugimenduaren aitzakian eta plazerean, ikasketa asko jasotzen ari naiz azkenaldian. Harrigarria da gure gorputzak gutaz nola hitz egiten duen, harrigarria ere gure nolakotasunean, “ezegokitasun” nabarmenak ditugun eta horietaz ez ohartzean, nola sortzen diren zailtasunak gure bizitzan. Oraingo nire lana nire benetako sentipenei lekua uztea izaten ari da, eta berauek ulertzea. Noski, gorputza bada horiek denak topatzeko bide zuzena.

Nire betidaniko funtzionatzeko era momentuan nola sentitu behar dudana pentsatzea izan da inkontzienteki, eta hori bilatzea. Adibidez, festan nagoenean pozik, heriotza bat gertatzen denean triste... Eta nola ez, “behar ez ziren” sentipenak onartzea kostatzen zitzaidan. Edo nire burua arrarotzat jotzen dut, adibidez ustez pozik egon behar nintzenean triste nengoenean. Urteetako izaera honek, nire benetako sentipenei, hau da, momentuan berean barnean gertatzen zirenei, kasurik ia ez egitera eraman nau. Beraz, barne informazio garrantzitsua galdu izan dut, nire barne errealitatetik nahiko “deskonektaturik” egon naizela esan dezaket.

Bestalde, ikasi dut ere badirela onartutako sentipenak eta onartzen ez ditugunak ere, horiek pertsona edo



dizkidala. Behar den garaian ez banaiz triste jartzen, ez banaiz haserretzen, ez badut beldurra sentitzen, oso informazio garrantzitsua galduko dut nitaz eta gertatzen zaidan egoeraz. Lekua utzi ez diodan sentipen hori nire barnean egongo da ateratzeko aukeraren bila, nire izaeran iltzatuta, aurpegian sakoneran margotua... Zeren bestea hori da, momentuko sentipenari behar duen lekua eman behar zaiola, triste banago, ez dut kolpez hori aldatu behar, behar den denbora eman behar diot sentipen horri bere “lana” egin dezan.

Harrigarria da nola askotan sentipen eta izaerak kontrakotasunez osatzen diren, alaia/tristeia, azkarra/motela, urduria/lasaia... Eta izaeraren alderdi bat jotzen dugu ontzat eta txartzat jotzen duguna ez dugu onartzen, eta gero bere gabezia pairatzen dugu.

“Txartzat jotzen dugun izaeraren alderdia ez dugu onartzen”

etxe bakoitzean aldatzen direnak. Adibidez, batzuentzat “alai” egotea edo izatea ona da, baikorra da, aldiz, triste egotea ez da ona, beraz ez da onartzen. Sentipenekin lotuta doaz ere izaerak. Gizartean, orokorrean, badaude onartutako sentipen izaerak, alaia, umila, lasaia... Eta okerrago ikusitakoak diren beste batzuk, tristeia, harroa, mugitua... Honek baldintzatzen gaitu sentipen batzuen gehiegizko presentzia eskatzera eta besteei behar dutena baino leku gutxiago ematera.

Ikasi dut ondorioz, behar ditudan egoeretan, “ezkortzat” ditudan sentipenak ez ditudala ateratzen eta gartzatzen, eta horrek gabeziak sortzen

Adibidez, nik pentsa dezaket egokiena pertsona lasaia izatea dela, baina tarteka urduritu behar naiz ere eta orduan txartzat hartuko dut hori... Ikasi dut nola ez dauden izaera txar edo onak, momentuari egokituak baizik...

Nire ukatutako izaerei lekua egitea dagokit orain, benetan naizen bezalakoa izateko eta egokiera horretan hobeto harremanetan jartzeko nirekin eta inguruarekin. Gainera, besteen izaerak on edo txartzat ez hartzen ere lan ederra dut, nire buruarekin egiten dudana bezala besteak ere epaitzen ditut eta borondaterik onenaz... Pozgarria izan da hau ikastea, beraz, orain, sentipen eta izaerak onartzera!



Euskara eta euskal kulturaren ikasle eta irakasle

Hamaika saltsatan ezagutu izan dugu beti Xanti Begiristain etxarriarra. Euskararen eta euskal kulturaren alde lan egin du beti. Bizitzak jarritako mugei bere burugogortasunarekin eta irribarrearekin egin die aurre eta hala lortu ditu hainbat eta hainbat gauza. Politikan, euskalgintzan eta musikagintzan egindako ibilbideaz aritu gara berarekin.

Auritzen orain dela bost urte eraikitako etxean hartu gaitu Xantik. Bertan bizi da bere bikotekidea den Teresa Fagoagarekin, neurrira egindako etxe bioklimatiko batean. Xanti: “Pagazi, hala du izena etxeak, aurrealdean pagondo pare bat dago eta Teresak Fagoaga du abizena, izen hori ere latinezko *FAGUS SYLVATICA* hitzetik eratorritakoa da, pagoa, hortik jarri genion Pagazi”.

Mendia eta elurra gustuko izanik leku ezin egokiagoa aurkitu zuen Auritzen, gainera, Xantik berak azaldu digun bezala, garai egon arren lautada batean kokaturik dagoenez, hainbat bidetan aulkian ibiltzeko arazorik ez du izaten. Baina, joan gaitezen Auritzetik Etxarriko bordetara, hangoa baita Xanti Begiristain, ez da ordea bertan jaioa. Ama Iruñera bidean zihoala etorri zen mun-

dura. Xanti: “Añezkarko aldapan jaio nintzen, Manolo Ayestaranen taxian. Ofizialki Iruñean jaio nintzela jartzen du, baina ez da hala, gainera, 35 urte inguru nituenean jakin nuen hori, kasualitatez”.

Maria Nieves Madotz zuen ama. Arriben jaioa zen hura, baina hiruzpalau urte zituela bera eta bere senideak Iruñera joan ziren bizitzera. Aita, berriz, Joxe Miguel Begiristain. Uitziko semea zen, baina hamalau bat urterekin familia Etxarriara joan zen bizitzera eta Behiko Borda erosi zuten (Garai batean Unoa izena omen zuen). Xanti: “*Amak Lekunberrin iloba bat zuen eta uda batean hura zaintzera joan zenean ezagutu zuen gure aita*”.

Etxarriko Behiko Bordara ezkondu eta

bertain hazi zituzten sei seme-alabak: Joxe Mari, Rosa Mari, Miguel Mari, Iñaki, Luis eta Xanti. Baserri giroan bizi ziren. Aitak etxean lan egiteaz gainera kanpora ere ateratzen zen. Xanti: *“Aldazko harrobian aritu zen lanean eta oinez egiten zuen joan-etorria. Azkeneko urteetan Leitzako Sarrion. Baina, baserrian lan handia egiten zuen, ni ere txikitan berlarretan aritu nintzen”*.

Sei urterekin hasi zen herriko eskolan, oinez joaten ziren Behiko Bordatik Etxarriraino, Xantik gogoratzen duen bezala txikitan asko ibili zen oinez. Xanti: *“Ez zegoen errepiderik eta so-roetan barna joaten ginen, eguerdian bazkaltzera etxera itzuli eta berriro ere eskolara. Okerrago ibiltzen hasi nintzenez Etxarrin bizi ziren Rafaela eta Elias izeba-osaben etxean bazkaltzen hasi nintzen; geroago, Zapatenean”*. Eskolako azkeneko bi urteak Lekunberriko eskolan egin zituen, han ere izaten zuen non bazkaldu, Zestonean gelditzen zen.

Eskola amaitu eta Iruñeko apezgaitegira joan zen eta han egin zuen batxilergoa eta garai hartako COU delakoa. Ondoren, irakasle ikasketak egin zituen. Xanti: *“Ekainean oraindik hiru irakasgai falta zitzaizkidalda eta nik bilatu gabe, Iruñeko Joan Amendux gau eskolan lana eskaini zidaten, AEKn”*. Sei urtez aritu zen bertan euskara irakasle eta bien bitartean Pablo Sarasate kontserbatorioan ikasten jarraitzen zuen. Handik gutxira udal ikastolan eskolaz kanpoko musika klaseak emateko eskatu zioten, eta, solfeoa eta txistua ematen hasi zen Hegoalden eta Amaiurren. Orduko oroitzapen politak gordetzen ditu Xantik: *“Ikasleen gurasoak euren artean antolatzen ziren ni batera eta bestera eramateko”*. Nafarroako Hizkuntza-Eskolan ere, tar-teka euskara ikastaro trinkoak ematen zituen Nafarroako Gobernurako. Ordu asko ematen zituen garai hartan lanean.

1991n oposizioak egin zituen eta euskara irakasle plaza lortu zuen, baina, bereziki elbarrientzako zen plaza hura

lortu bazuen ere, ondoren oztopo asko izan zituen lan egin zuen ikastetxe haietan. Xanti: *“Lehenik Iruñerriko Uharteko eskolan hasi nintzen, baina sarreran eskailera batzuk zeuden, bainugela egokitu gabe zegoen. Gero Zizur Nagusiko eskolara bidali ninduten eta helduekin nahiago nuela zehaztu arren, hiru urteko hurrekin jarri ninduten A ereduan. Handik denbora batera Sanduzelaiko Miluze euskaltegia hasi nintzen, baina hura ere solairu batean zegoen eta Nafarroako Gobernuak bi ikasturte behar izan zituen, igotzeko plataforma bat ekartzeko Alemaniatik”*.

Miluzen hamar bat urtez aritu zen lanean eta ondoren Uharteko Zubiarte eskolan zela, 2003an hauteskundeetara aurkeztu eta Iruñeko Udalean sartu zen zinegotzi. 2007an, Udaletik atera eta gero, Xantiren asmoa lanean jarraitzea bazen ere, ingurukoek animaturik elbarritasun baja eskatu zuen, baina 2009tik erretiraturik egon arren, ez dio han eta hemen lan egiteari utzi.

“Txikitan erdaraz egiten genuen”

Xanti, zuri jaio bezain laster diagnostikatu zizuten giharretako gaixotasuna?

Ez. Nik gogoratzen dut lau urte inguru nituenean ja sumatzen nuela indar gutxiago neukala oinez ibiltzerakoan. Nire gaitza giharretako distrofia progresiboa da, gerrietako distrofia ere deitzen diotena. Nik orain dela urte gutxi jakin nuen munduan gutxi gorabehera 34 mota zeudela eta bada bat Euskal Herrikoa dena, Goierrin jatorria duena. Donostiako sendagile batek, nirea mota horretakoa zen jakiteko probak egin nitzala esan zidan eta horrela baieztatu nuen. Eta ez da harriztekoa zeren ez dakit zehazki nor, baina gure atzen attuna edo birattuna Ataundik Uitzira joan omen zen bizitzera eta egun, oraindik, Ataunen Begiristain izeneko baserri bat omen dago.

Beraz, txikitatik hasi zinen ibiltzeko zailtasunak izaten?

Bai, oinez ibiltzea kosta egiten zitzaidan eta erori egiten nintzen. Gaixotasunak ez zien uzten muskuluei behar bezala garatzen eta tendoiak ere ez ziren luzatzen, horregatik ni askotan hanka puntetan ibiltzen nintzen, batez ere eskuineko hankarekin. Lekunberri batzuek “Puntillas” deitzen zidaten.

Eta sendagileek zer zioten?

Gurasoek zenbait sendagilerengana eraman ninduten, Iruñeko Lizarraga doktorearengana edo Redin doktorearengana, Iberoko masaje emaile batengana... Horietako batek txerri hankak eta belarriak jateko gomendatu zidaten, baina horrekin loditu baino ez nintzen egiten. Eta hori ez zen positiboa, indar berdinarekin pisu handiagoa mugitu behar nuelako. Ondoren, txertoak ere jarri zizkidaten Akiles tendoiak luzatzeko. Lehendabizi, bi tendoietan hamabi urterekin eta handik pare bat urtera eskuineko tendoian. Uste dut txerri tendoiak jartzen zituztela garai hartan gizakiok ditugunon oso antzekoak direlako. Horrela, tendoiak luzatzea lortu zuten baina indarra galdu nuen eta pixkanaka lehendabizi bastoi batekin ibiltzen hasi nintzen, gero bi bastoierekin eta hemeretzi urtetik aurrera guppil-aulkian.

Baina orduan oraindik diagnostiko zehatzik jakin gabe zeunden?

Nik behintzat oso argi ez nekien. Gainera, ez zidaten esaten argi eta garbi herentziakoa zen edo ez.



Horren gaztea izanik egoera onartzea ez zen erreza izanen...

Alde batetik zorte ona izan nuen, pro-



Eta gaixotasunak bestelako arazorik ekarri al dizu?

Ez. Nire lan bizitza osoan ez nuen inoiz bajarik eskatu. Katarroren bat edo gripa zela eta agian egun batez ez nintzen joan, baina lehendabiziko baja ofizialki erretiroa hartzeko izan zen.

Baina zure burua zaintzen duzu, barazki-jalea ere bazara...

Bai. Tejeroren estatu kolpe saiakera gertatu zen urte hartan, ni Iruñean bizi nintzen ikasle pisu batean. Pisu-kide bat Gipuzkoakoa zen, medikuntza ikasketak bukatzen ari zena eta bera eta beste lagun batzuk medikuntza alternatiboan murgiltzeko asmoarekin Bilboko Xabier Arribillagarengana joan ziren. Hura ere sendagilea zen, eta konturatu ziren hark ere nire gaixotasun bera zuela eta bere burua tratatu zuela akupunturarekin. Hark esan zidan: "Gaitz honek momentuz ez dauka konponbiderik, baina egin daitekeena da gorputza ongi zaindu eta harrezkeroztik landarejalea izaten hasi nintzen, ez guztiz baina bai neurri handi batean. Osasun arazoengatik hartu nuen erabakia, baina gerora, baita animaliekiko errespetuagatik ere.

Gaztaroa ere ezin izan zenuen gainontzeko lagunak bezala bizi...

Ez eta pena dut nerabezaroan pestetan edo parrandan gozatu ezin izanaz. Ni ez nintzen joaten besteak bezala *Ma-lloak* dantzalekura edo Leitzako pestetara parranda egitera. Horregatik inoiz ez dut "nire koadrila" eduki, ezagun asko dauzkat, lagunak ere, baina koadrilarik ez.

EUSKARA

Xanti, zu euskara irakaslea izan zara, baina askoren harridurarako txikitzen ez zenuen euskaraz egiten...

Ez, niri etxean ez zidaten euskara iraka-

gresiboa izan zelako, poliki-poliki joan nintzen oinez ibiltzeko gaitasuna galtzen eta horrek denbora ematen dizu hausnartzeko, pentsatzeko eta onartzeko. Gogoratzen dut noizbait Iruñeko sendagileren batek esan zidala: "Zuk azkenean, seguru aski, gurpil-aulki batean bukatuko duzu!". Orduan pixkanaka-pixkanaka onartzen joaten zara. Gainera hobe horrela. Nik uste askoz gogorragoa izan behar duela istripu baten ondorioz aulkian ibiltzen hasi beharra, askotan gertatzen den bezala. Eta ez dut oso buru azkarra eta distiratsua izan, baina konturatzen nintzen bestelako gauzatxo batzuk egin ahal nituela eta aurrera egin nuen.

Sortzen ziren traben eta gaixotasunak berak ekarritako mugei aurre eginez zure buruari proposatutako gauza asko egitea lortu duzu...

Bai, muga izan da, baina beharbada

"Poliki-poliki joan nintzen oinez ibiltzeko gaitasuna galtzen eta horrek onartzeko denbora ematen dizu"

nire izaeragatik, behar izan dudanean behintzat laguntzaileen bat edukitzea lortu dut. Adibidez, ikastolan irakasle ibili nintzen garaian pare bat urtez, egunean hamar edo hamaika orduz aritu nintzen lanean: udal ikastolan, gau eskolan irakasle, gero kontserbatoriora... Baina, hori banekien bolada bat izanen zela. Eta bestalde, kaleko oztupoak pixkanaka-pixkanaka joan dira kentzen, autobusak pixkanaka egokitzen...



Lagunasesoría S.L.
Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

SAN MIGUEL
gasolindegia



Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu

German Lasarte
ARBEONDO
HARATEGIA
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157



OKM
ABOKATUAK
Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua
Arretxea, 1º, Alli. Tfnoa: 609 130 555

tsi. Atte oso euskalduna zen, baina amak hitz eta esaldi solte batzuk baino ez zekizkien eta ezkondu zirenean attek amari euskaraz eginen ziola esan omen zion, ikas zezan. Baina gure attek abiadura bizian hitz egiten zion eta amak ez zuen ezer ulertzen eta, azkenean, erdarara pasatu ziren. Guri ere frankismo garaia tokatu zitzaigun eta erdaraz beti.

Beraz, aitz zuei ere txikitatik erdaraz egiten zizuen?

Bai. Adibidez, Etxarriko eskolan Zaragozako maistra bat izan nuen nik lehen-dabizi, erdalduna, Maria Luisa Artigas. Gero, hiru urtez, Errazkingo Mari Jose Oreja izan genuen eta gogoratzen dut, nahiz eta klaseak erdaraz eman, euskarazko zenbait abesti ikasi genituela berarekin, *Aldapeko sagarraren*, konparaziora. Doktrina, berriz, euskaraz ematen zuen apezak. Leitzakoa zen, Don Modesto Beratsain. Etxarrin herritar guztiak euskaldunak ziren, Matxeneko hiru eta gutako batzuk izan ezik. Apezak erdalduoi erdaraz ematen zigun eta beste guztiei euskaraz.

Eta euskara nola ikasi zenuen?

Lekunberriko Apez-etxean liburuxka bat ikusi nuen euskara ikasteko oinarriko esaldiak biltzen zituen eta Don Jesusi eskatu egin nion. Udan Juan Miguel Etxarrik euskara ikastaro bat eman zuen, eta handik urtebetera beste ikastaro bat eman zuen Lourdes Mitxausek eta horrela hasi nintzen ikasten. Gero, Iruñeko apezgaitegira joan nintzenean ikasten jarraitu nuen. Iturengo Andres Iñigo eta Leitzako Martin Azpirotz izan nituen irakasle, besteak beste.

Baina, gehienbat zure kontura...

Bai, bai, ikastaroak eginez eta liburuen laguntzarekin. Gogoratzen dut Etxarrira joan eta bordetan ere gehienek normaltasunez euskaraz egiten zutela, horre-

gatik hitz gehienak entzunak nituen eta ikasten hasi eta gustua hartu nion eta horrela EGA atera nuen.

“Niri etxean ez zidaten euskara irakatsi”

POLITIKA

Politikagintzan ere ibilitakoa zara...

Bai. Niri politika beti interesatu izan zait, baina edozein herritarri bezala. Hamabost bat urte nituela, Don Jesus-ek egiten zituen hainbat eta hainbat gauzaren artean, historia hitzaldi bat antolatu zuen eta Patxi Zabaleta gonbidatu zuen. Nik ez nuen ezagutzen, baina gogoratzen dut harrিতa gelditu nintzela, zenbat gauza esaten zituen eta data guztiak buruz nola botatzen zituen entzunda. Gero, apezgaitegian nengoela entzun nuen Herri Batasuna sortzen ari zela. Lau aldiz eskatu izan didate alderdi ezberdinetako zerrenda-gai izateko. Lehenik Herri Batasunan, gero Euskal Herritarrok sortu zenean ere eskatu zidaten eta bukaeran jartzeko esan nien. Eta ondoren Aralar sortu zenean izan zen, hor erosoago sentitzen nintzen.

Zergatik?

Herri Batasunaren ideologiarekin ongi nengoen, baina ez nengoen gustura borroka armatuarekin eta Aralar sortu zenean hobeki sentitu nintzen. Batzarretara joaten hasi nintzen eta kolaboratzen. Aralarko zerrendetan nengoela, Iruñeko Udalean bi zinegotziren aulkiak lortu zituen alderdiak eta Javier Eskubi eta biok aritu ginen.

Eta zer moduzko esperientzia izan zen zuretzat?

Alde batetik gogorra izan zen, ETAK bere



ekintza armatuarekin jarraitzen zuelako eta oposizioan eta gainera gutxiengoan egotea tokatu zitzaigun. Baina, bestalde, gero zortea izan genuen, udalean hasi eta urte eta erdira mutil bat jarri ziguten laguntzeko, eta hobeki. Gainera, garai hartan Nafarroa Bai sortu zen, 2007ko uda hartan Nafarroan PSNrekin akordioa lortuta, nahiz eta gero Madrildik debekatu. Baina, ni, sentsazio onarekin eta egindako ahaleginarekin pozik gelditu nintzen, bukaera arte behintzat iraun baikenuen. Ni ez naiz sentitzen politikari eta askoz gutxiago ona. Udalean batez ere hiru arlotan lan egiten saiatu nintzen, euskara, euskal kultura eta oztopo arkitektonikoak kentzearen alde.

Eta azkeneko senaturako hauteskunde hauetan EH Bilduko zerrendaburu izan zara...

Egia esan, Iruñeko Udaletik atera ondoren, noizean behin bilera nagusietara

SASTRAKA
auto 4x4

Ibilgailuen Mekanika Orokorra
(azterketak, gurpilak, olio aldaketak,...)

Baita Todoterrenoetan Espezializatua ere
(prestakuntzak, homologazioak, erreformak,...)

Industrialdea, 9
31870 Lekunberri

948.60.48.06 Iñigo
www.sastraka4x4.com

M. Angeles Urrizalki

iragarkiak, berriak, eskelak...

Diario Vasco eta Diario de Navarra Korrespontsala

948513056
699179437

aitz berri

edertasun zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890

948 513 083
696 732 290

aitzberri@hotmail.com

joaten jarraitu dut, baina ez nuen espero berriz inork zerrenda-gai izateko eskatuko zidanik. Baina EH Bildutik eskatu egin zidaten eta hor ibili gara kanpaina egiten. Azkenean, 45.300 boto pasatxo eman zizkidaten, eta gutxienez ez naiz barregarri gelditu!

“Ni ez naiz politikari sentitzen eta askoz gutxiago ona”

MUSIKA

Txistularia ere bazara. Nondik datorkizu musikarako zaletasuna?

Txikitan Lekunberriko festetara jaitsi nintzanean, ikusi nituen lehen aldiz txistua jotzen Juan Miguel Etxarri, Luisa Ruiz... Gustatu zitzaidan, baina ez zitzaidan burutik pasatu ere egiten nik ikasiko nuenik.

Eta nola ikasi zenuen?

Hamabi bat urterekin bi zangoetan tenoietako ebakuntza egin zidatenean, bizpahiru hilabetez geldi egon behar izan nuen. Bi zangoak orduko igeltsu gogor harekin bilduak izan nituen. Etxean nintzela Don Jesus Jaimerena etorri zen bisitan. Bazkalondoan Behiko Bordan azaldu zen plastikozko poxpolin batekin. Pentagramadun orritxo batean, nota bakoitza nola jotzen zen jarri zidan eta horrekin batera hiruzpalau abestiren partiturak. Horrela, nire kontutik abesti ezagun haiek jotzen ikasi nuen eta handik hiru hilabetera berriz ere Lekunberriko eskolara joaten hasi nintzanean, apez-etxean Don Jesusekin ikasten jarraitu nuen. Gogoratzen dut, uda batean, txistu ikastaro bat antolatu zuela eta Joxe Ignazio Ansorena ekartzen saiatu zen, baina ezin izan zen etorri eta Juantxo Vega izan genuen irakasle.

Gero Iruñeko kontserbatorioan hasi zinen?

Ondoren, Donostian, nire kontutik txistuko lehen mailako proba egitera aurkeztu nintzen eta gero Iruñean ofizialki jartzea lortu zutenean, bosgarren mailaraino egin nuen, baita solfeo eta beste-lako ikasgai batzuk ere.

Eta kontserbatoriotik kanpo non jotzen zenuen txistua?

Lekunberri bazen Larraungo dantzarien



Don Jesus Jaimerenak oparitutako lehen poxpolinarekin hasi zen Xanti txistua jotzen.

talde bat eta hainbat urtez ibili ginen dantzari horiekin. Garai hartan berreskuratu zen Uitziko ingurutxo. Irurtzango eta inguruko Orritz taldean ere hamar bat urtez ibili nintzen, eta Ortazar taldearekin ere hiruzpalau aldiz-edo izan nintzen, baina ez nuen jarraitu. Baita Etxabakoizko dantzari batzuekin ere.

Lagun talde batekin ere aritzen zara jotzen...

Bai. Iruñeko udal ikastolan aritzen ginen lagun batzuekin. Azkeneko bost urteotan, hilabetean behin Vaguada zahar-etxean jotzen dugu. Eta horrez gain, zenbait alardetan ere jotzen dut Sanferminetakoan, Burlatan eta Tafallan. Donostian, Lizarran eta Gasteizen ere izan naiz hiru aldiz.

Lekunberri eta Larraungo txistulariekin ere tarteka aritzen zara...

Bai. Abesbatzaren kontzertuetan bizpahiru aldiz parte hartu dut. Hango txistulariek, oinez dabiltzala jotzen dute askotan eta nik hori ezin dut egin. Bere

garaian, bost bat doinu sortu nituen txistuarekin eta orain dela urte gutxi Silvia Oterminek horietako bat *-Gora Beti Kozkor-* eskatu zidan eta horrek bukatu gabe nituen zenbait doinu bukatu eta zenbait doinu berri egitera animatu ninduen.

KOLABORATZAILE

Hainbat herri komunikabidetan ere kolaboratzen duzu Xanti...

Bai. 2009tik erretiraturik nago, eta nik bilatu gabe eskatu egin didate han eta hemen laguntzeko edo parte hartzeko. Aralar Irratian urte asko daramatzat kolaborazioak egiten. Mailopen ere zuzenketak egiten aritzen naiz eta bururatzan zaizkidan artikuluak bidaltzen ditut. Mendixuten ere zerbait egin nuen, Zaldiko Maldikoko liburu-irakurketa taldean aritzen naiz eta orain dela bi urte, hamabostean behin Irati Irratian parte hartzeko eskatu zidaten. Gertatzen dena da, saltsa gehiegitan sartzen naizela eta gero ezin naiz aritu denetan behar bezala.

<< Nor da Nor?



Nor da nor?

Nortzuk azaltzen dira argazkian?

Non ateratakoa da?

Noiz ateratako argazkia da?



Hona hemen aurreko alean kaleratutako argazkiko erantzunak:

Aurreko alean kaleratutako argazkia 1930. urte inguruan ateratakoa da. Lekunberriko nesken eskolako ikasleak dira. Garai hartan herriko eskola Alpagatero etxean zegoen.

Atal berri honekin zuen etxeetako kutxetan dituzuen garai bateko argazkiak berreskuratu nahi ditugu.

Bidali iezazkiguzu zure argazkiak denon gozamenarako mailope@labrit.net helbidera edo 638 65 23 39 deitu eta kudeatuko dugu.

- 15 -

Larraungo AEK EUSKARA IKASTAROAK

- Maila guztiak
- Guraso taldea 5/6 ordu astean
- EGA azterketa prestatzeko ikastaroa
- Taldea edo autoikaskuntza

INFORMAZIOA ETA IZENA EMATEA
948 60 47 04 edo 607 622 102
larraun@aek.eus

Izena eman irailaren 27a baino lehen

Aralar kalea 5, Lekunberri

DIRU-LAGUNTZAK/ BECAS

Iparraldeko Euskara Mankomunitateak diruz lagundutako ikastaroak

aek

euskara praktikoa

100% AFECTIVO

Eman izena
Matricúlate



Dokumentuetan ez dagoenaren bila

Uztailean ekin zioten Aditu Arkeologia Zerbitzuko arkeologoek Aralarko San Migel Santutegiaren kanpoko indusketa lanei. Dagoeneko burdinezko gezi eta lantzen zenbait punta, giza hezurak, txanponak, iltzeak eta bestelako elementuak aurkitu dituzte. Herrialde ezberdinetako ikasleak parte hartzen ari dira ikerketa lanean. Helburua, XI. Mendearen aurretik santutegian bizi zirenen historia ezagutzea.



- 16 -

Rogain and Co talde frantsesak irabazi du Europako Orientazio Txapelketa

Abuztuko azken asteburuan ospatu zen Aralarren Europako Orientazio Txapelketako 13. edizioa. 24 orduko proba horretan 470 korrikalarik parte hartu zuten. Aldi berean, 6 orduko Nafarroako Oraintazio proba jokatu zen eta berta 171 lagun ibili ziren. *Rogain and Co* talde frantsesak irabazi zuen 24 orduko proba kategorian mixtoan. Estoniako *Geniaalne Superkonn* taldea izan zen azkarrena emakumezkoen kategorian eta *Inov-8* talde txekiarra gizonetakoan.



Nekazari Eguna ospatuko da irailaren 4an

Hemezortzi urte eta gero orain dela bi urte berreskuratu zuten Nekazari Eguna Lekunberrin. Aurtengoan irailaren 4an ospatuko da. Auritz arrazako zaldi eta behorren lehiaketa izanen da ekitaldi nagusia. Horrez gain, abere ezberdinen erakusketa ere izanen da.

Txorbela Otxoteak kontzertua eskainiko du Lekunberrin

Mitxausenea Kultur Etxeko 25. urteurreneko ospakizunen harira, Arrasateko Txorbela Otxoteak kontzertua eskainiko du irailaren 24an. Saioa arratsaldeko 20:00etan izanen da Lekunberriko elizan. Abesteko zuten zaletasunagatik sortu zen taldea 2008an eta gerotik euskal kulturarekin lotutako abestiez gain, errepertorio zabala osatu dute.



Ondare kultur taldeak “Intzartzeta” korrika tokia berreskuratu du



Uztailaren 16an Alliko “Intzartzeta” eremuan lagunarteko herri kirol festa ospatu zen. Iaz Uitziko “Aniceto” korrika tokian egin zen bezala, oraingoan Alliko eremu hori berreskuratu dute.

Intzartzetaren garbiketa eta berreskuratze lanak aurtengo udaberrian egin ziren. Lekua prestatu ondoren, Larraungo kiroltzaleen esku geratu zen festaren antolaketa eta ekimenak Kirol mankomunitatearen babesa ere izan zuen. 200 pertsona inguru bildu ziren, haur, heldu eta batez ere gazteak.

Herri kirol froga konbinatuak antolatu ziren, haurrentzat zein helduentzat. Korrika, trontza, koxkor bilketa, txingak, zakua, aizkora eta amaieran soka tira nahi zuen guztiarentzat.

Egunak omenaldirako tokia ere izan zuen. Uitziko Gurutzalde etxeko Anttoniori gogoratu zuten. Herri kirol amorratua zen hura eta behar zen guztietan beti laguntzeko prest zegoela nabarmendu zuten. Festa merendu batekin luzatu zen gaueko hamaikak arte eta ondoren Alliko ostatuan jarraitu zuten.

Ondare taldeak eskerrak eman nahi ditu festa aurrera ateratzeko laguntza eman duten guztiei eta bereziki Alliko Kontzejuari uneoro luzatutako erraztasunangatik.

Zarate gaineko kirol eta kultur festa

Dagoeneko Azken Muga proiektuaren zenbait emanaldi egin dira Zaraten. Uztailaren 12an egin zuten bertan antolatuko diren ekitaldi ezberdinen irekiera ekitaldia bertsolari, dantzari eta musikariekin. Uztailaren 25ean berriz, herri kirol saioa eta bazkaria izan zen bertan. Herri kirol saioan inguruko herrietako gazteek parte hartu zuten, Alegi-Altzo, Amezketa eta Araitz-Beteluko taldeen artean aritu ziren. Proba konbinatua egin zuten lehenik (loko tx bilketa, txingak eta zakua eramatea, lasterka eta trontza) eta ondoren sokatira. Proba konbinatua Araxes taldeak irabazi zuen eta sokatiran berriz amezketarrek.

Ondoren bat edo beste harria jasotzen edo harri tiran egitera ausartu zen. Eguerdian, 150 lagun inguru elkartu ziren bazkaltzera eta arratsaldeko seietara luzatu zen festa.

Gogoratu irailan oraindik ere jarduera gehiago izanen direla!



 **ALIPROX**
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldi
eskaintza bereziak

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA
 **696 658 288**
LEKUNBERRI

 **SUAKONTROL**
LEKUNBERRI
Suaren kontrako plakak
Oztegin kalea 25,
Lekunberri
948 60 48 96 (Tel.)
948 60 45 16 (Faxa)
suakontrol@grena.es
www.grena.es

IORTIA CLINICA DENTAL - HORTZ-ESTETIKA
Juanjo Gaite García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591
Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI



*“Oinez, leitzen da eskribitzen,
dena hasieratik ikasi behar
izandu nun”*

- 18 -



Anttoni Martinikorena errazkindarra ezaguna dugu inguruan egiten dituen txapa eta eskulanengatik. 30 urte ingururekin izan zuen bihotzekoak bizitza erabat aldatu bazion ere, pertsona autonomoa izatea lortu du. Garun Lesioen Nafarroako Elkartearen izan gara berarekin, Mutiloabeitin.

Anttoni zu Errazkinen jaioa izanen zara...

Ez, ni Tolosan jaioa naiz 1959an, biño Errazkinen bizittue beti.

Eta gurasoak nongoak ziren?

Ama, Ramona Baraibar, Leitzekoa, eta atte, Domingo Martinikorena Errazkingoa, Martikonekoa. Da gu han bizittu giñen, Martikonean.

Zenbat senide zarete?

Lau. Miguel, Joxe Martin, Juana Mari ta ni ttikina.

Txikitako ze oroitzapen gordetzen dituzu?

Baserrin ibiltzen ginen. Atte hil zen nik hamahiru urte nittunean da amakin geittu

nintzen. Da han ibiltzen nintzen etxeko lanak eitten da hola. Biño ama de hil zen nik hamazazpi urte nittula. Ordun baserrin ja etzegoan salideik eta atea beharra izandu nun.

Eta nora joan zinen?

Iruñea, Urrizalqui taberna lanea. Jarauta kalean zegoan. Famili hartako andrea, Milagros Redin, netzako ama bat bezela izandu zen. Asteazkenetan bakarra izaten nun jai ta Errazkinea joaten nintzen. Da tomaten tenporada balin bazen tomateak eaman botilletan sartzeko. Ta han hemezortzi bat urte ein nittun lanean. Biño hue itxi zen, da be alabak seme bat bazun da alaba de bai ta hango etxeko lanak eitteko ta umek zaintzeko hartu ninduen.

Orduan asteburuetan jai egiten hasiko zinen...

Bai ta Errazkingo taberna hartu nun asteburutako. Kriston ambientea izaten zen.

Astex lanean eta asteburuetan Errazkenera etorri eta lanera ere...

Bai, "puriempleada" o ze izen du horrek? [Kar, kar, kar...]. Taberna tenporadatan eoten zen irikie. Gero nik hartu nun ta ahizpek eta auzokoak launtzen ziaten. Allatu izandu ginen bi autobus jendez beteik etorri ta jaten ematea.

Eta nolatan izan zen hori?

Laun batek deittu zeen ostiel baten: "Anttoni, bi autobusetan joan beau Donostitik. Sesenta personas. Moldatuko al ziñuke bazkarie?". Ta nik baiezkoa esan. Launbetetan joaten zen gizon bat Tolosa eta harrei eskatu nizkion baba gorrik eta solomue ekartzeko. Hoixe jarrri giñun otordue ta denak pozik!

Zuk Errakinen gaztetan zein zenuen lagun mina?

Kontxi Mitxitonekoa, hoi laun miñe nun trastadak eitteko ta...

Eta ze bihurrikeria egiten zenituzten ba?

Etxeon batea joan ta ganbaan intxaurrek eukitzen zittuen ta ordun etxeko andreak esaten ziun: "Zoaztea ta intxaurrek batzuk hartu". Ta guk gero esku txabalean jarrita gutxi batzuk hartzen giñun erakusteko, biño balkonetik beheira intxaurrek botatzen genituen lehendabizi ta handik ateratzekoan denak bildu ta kitto!



Astean zehar egunean hainbat orduz aritzen da Anttoni eskulanak egiten.

"Bankukoak pentsatu zuen Urte Zaharretatik mozkortuik eonen nintzela"

Festak pasa berri diren honetan... Nolakoak ziren lehenagoko festak?

Lau edo bost eun izaten zeen. Festetan famatuna netzako puskabilte zen. Leno goizetan eitten zen, bi txandatan. Horrela bi edo hiru goiz okupatuk izaten zeen. Jai eunetan ez zen puske biltzeik eitten, etxeta jendea etortzen zen da ordun errespetungatik... Ta atsaldetan ume jokuk o herri kirolak izaten zeen. Eta meza de joaten ginen hamabitan, faltatu gabe!

Inguruko herrietako festetara ere joaten al zinen?

Buf! Erretiratu bai! Beteluko pestetan de bai earki pasatzen giñun. Goizeko zazpitan gosaltzen Milagrosen tabernan ta... Nik denai esaten dioat gaztetan ein, gero allatzen da momentuet eziñe etortzen dena. Ta osasune ta dirue balin badao sei! Lenao diru asuntoa zen problema, biño moldatzen giñen.

Dantzatzen hasi ta beti ganberradan bat eitten bukatzen ginun, biño pozik nao eindakoangatik.

Behin gabonetan afaria ere antolatu zenuten tabernan...

Bai. Urte Zahar batzutan aparie ein giñun herrikoak. Hurrengo eunen nik jai ein nun ta hurrengoan, urtarrilen 2n infarto bat eman zeen bihotzen.

Zenbat urte zenituen orduan?

30 eo 33 izanen nittun. Ta ondoren dena berri-berritik ikasi beharra. Banco Bilbao Kultxan diruk sartzea joan nintzela eman zeen. Lurrea erortzekin bankukoak pentsatu zuen Urte Zaharretatik mozkortuik eonen nintzela. Eun hartan anbulantzik greban zeuden ta asko tardatu omen zuen. Da nei oxigenoik ez allatzen burure. Horrek nahigabe guztik sortu zeen. Ta gero ospitalean de UVIko medikue Candanchún zela esaten zuen.

Zorte txarra eta kasualitate asko orduan?

Bai, bai. Nekin etzun inork e kontatzen! Ta ni eoten naiz pentsatzen mutilzaha-

elkARRIZketa:

“Ni ez naue familikoak ta launek abandonatu ezta eun baten e!”

rrai dirue kendu niela ta horrengatiken infartoa eman ote zien....

Mutilzaharrei dirua kendu?

Bakizu mutilzaharrak zurren fama zeuketzen ta nik aparie in da dirue eskatu...

Baina doan ezin emanen zenien ba!

Eztaikit ba! Biño emozio horrengatik gertatu ote zen ba! [Kar, kar, kar..].

Eta denbora luzez egon zinen ospitalean?

Asko, urteat o. Sanferminetako atea zeen aurreneko aldiz, gurpil-aulkin. Ta ne urtebetetze eunen, uztailen 28n eaman ninduen Bartzelona, protesis jarzea trakean. Gero kendu ziaten, biño lan asko eman du horrek.

Ahotsik gabe gelditu zinen?

Arnasa ezin hartu, ia ittoan ibiltzen nintzen beti. Bartzelona anbulantzin hama bi bat biaje behintzet ein dittut. Ta dena berriz ikasi behar izandu nun, oinez, leitzen, eskribitzen... Erreabilitazioa in nun Ubarminen, ta geo etxean de bai. Alderdi batetik bestea belautzen ganean ibiltzen nintzen...

Urte gogorra orduan...

Bai, bai. Biño salbatu behar da! Ospitaletik ateatakoan anaiekin joan nintzen bizitzea, Iruñen. Miguelen etxean eotten nintzen. Jarri zeen neskaat launtzeko. Ta gero anaie ezkondu zenean zentro honta etorri nintzen. Oain ostialetan eamaten naue Errazkinea ta igande gabean etorri.

Astelehenetik ostiralera hemen (ADACEN elkarteko egoitzan) bizi zara orduan?

Bai.

Eta hemen nolakoa da zure egunerokoa?

Goizeko zortzi terdik aldea esnatu, du-txatu, gosalduta ta geo batzutan daukeu fisioakin eon beharra, logopedakin, bizikleta estatikoan ibiltzen... Da geo bazkaldu ta atsalden telebisioa ikusten eon o siesta in ta ondoren eskulanak eitten dittu. Ni txapak eitten aitzen naiz.



Bigarrenez oinez ikastea kosta bazitzaion ere orain ederki ibiltzen da, baita bizikletan ere!

Paseatzera ez al zarete ateratzen?

Bai, bai, nahi zun aña. Gañea ni osteunetan Iturrama juten naiz. Han laun batekin pintxoat o kafeat hartu ta... Beatzitan ateatzen naiz hemendik da ordu bitan etortzen naiz.

Ateraldiak ere egiten dituzue tarteka...

Bai gaur goizen Sanfermineta joan ga, entzierroa ikustea Iruñeko udal-etxeko balkonea. Hoi ez da berriketa e! Eta oso ongi, biño zezanak kontatzeko denboik de ez dit eman, seittun pasatzen die.

Tarteka eskursioak eitten dittu, Donostie, Iruñeko elkarten batea bazkal-tzea...

Eta ostiraletan Errazkinea?

Bai, bai ta pozik. Errazkin herri txikie da, biño bihotzez haundie!

Hara joaten zarenean zer egiten duzu?

Etxean gutxi egoten naiz eta paseatu ere gutxi. Bata eta bestea bisitatzen ibiltzen naiz, denboa hola pasatzen zat. Auzokoa-kin e kunplittu beharra dauket eta...

Eta gaizki egon zinenean, herrikoek lagundu al zizuten?

Asko, asko, ikaragarri. Ni ospitalean urteat eondu naiz ta ni ez naue familikoak ta launek abandonatu ezta eun baten e! Hoi netzako orgullo haundie da. Urteat ospitalen asko da.

Herritarrek bisitan joaten ziren orduan?

Bai bai, Errazkingo mutilzaharrak filan filan... [Kar, kar, kar].

Anttoni ta zuk gaztetan mutilagunak izanen zenituen...

Ez. Ni Urrizalquin negoanen nobioak



asko nittun, biño “amigos con derecho a roce”, gaineoan ez dut nobioik euki. Biño earki nao. Etxe hau aurkittut ta nezako garantie da ta familintzako de bai!

Herrian omenaldiren bat ere egin izan dizute, ezta?

Bai. Errazkinen oain dela urte asko, infartoa pasatu ondoren herriko pestetan eñ zeen omenajea. Nik ez nekin ta sorpresa. Beteluko dantzarik dantzatu zeen eta Milagros Labiñekoak irakurri zun idaztie ta hola. Emoziio haundie.

TXAPAK EGIN ETA EGIN

Txapak egiten norekin ikasi zenuen?

Honea etortzen deen boluntariooakin. Hoik lan ona eitten due. Netzako boluntarioak etortzea garrantzitsue da.

Eta gustatu?

Ikaragarri. Biño txapak eñ da txapak sal-

“Errazkin herri txikie da, biño bihotzez haundie”

du eitten dittut euro batean. Mailopeko zorion agurretatik hartzen ditud argazki asko txapak eitteko. Errazkingo guzik battue!

Iman bezala eta botilak irekitzeko ere balio dute txapa hauek...

Bai.

Eta nola egiten dituzu?

Argazkie eitten da eskaneatu, ta geo ordenadorean medioz moldatu. Txapan azpikaldekoa iñe etortzen da, ordun argazkie itten da inprimittu ta makinakin moztu. Eta gero bauku beste makina bat

prentsatzeko. Lehenbizi txapa jarri, gainen argazkie ta gero plastikoa.

Txapak egiteaz gain zein beste eskulan egiten dituzu?

Artilezko borlak, margolanak... Denetik. Oain olentzero bat margotzen ai naiz. Kafe kapsulakin e llaberoak, brotzeak eta denetik egiten ditud. Hoi bai, material guzie reziklatutakoa behar du!

Eta zer sumatzen duzu faltan, Anttoni? Zer eginen zenuke gustura eta ezin?

Kotxea! Ne Citroen Ax-ekin ttpa! Erki ibiltzen nintzen batea ta bestea. Biño ezinezkoa balin bada ez dao burue hausteik horrengatik. Ni erki nao! Osasune bauket, hitz eitteko abilidadea de bai ta nik asko lortut!

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.



Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)

948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com

Lagundu Mailope!

Mailopeko bazkidea izan nahi duzu?
mailope@labrit.net

GARAIZ Zure behar eta ordutegira moldatuko gara

ETORRI ETA INFORMAZIA ZAITEZU!

Mate erdi eta goi zikloetarako prestaketa
Fisika Inglesa 948 504 450
lengua kimika 64825352
euskerà historia
unibertsitate mailako ikasgaiak

erreportajetxoa

Festa giroan...

Dagoeneko eskualdeko herri gehienetan festak ospatu dituzte eta uda honetan ere han eta hemengo irudiak bildu ditugu. Irailean Allin, Baraibarren eta Uitzin izanen dira (Egitarauak kontrazalean ikusgai).



Arriben eta Azpirotzen "Bereko" fin aritu zen segan. Azpirotzen koadrila ederra elkartu zen herri afarian eta gaueko parrrandan. Errazkinen, igandean urteroko herri kirol saioari eutsi zioten, baina aurtengoan gaztetxoaren artean egin zuten norgehiagoka.



Arriben, larunbatean, goizaldeko hiruetan txinga txapelketa egin zuten. Azkaraten, txikienek klown ikuskizunaz gozatu zuten. Iribasen, Basakaitz dantza taldeak urtero bezala bere emanaldia eskaini zuen eta Gorritin, trontza txapelketa eta bertso saioa izan ziren igandean.



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Orduategia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO
ELKANO
S.L.**

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com

Bi artisau azoka izan dira abuztuan Lekunberrin

Abuztuan bi azoka izan ziren Lekunberrin. Urtero bezala hileko lehen igandean Erdi Aroko azoka ospatu zen herrian. Azkeneko edizioetan egin den bezala aurtengoan ere elizako kanpainak joaz egin zuten merkatuaren irekiera. Garai bateko lanbideen tailerrak eta dantza emanaldiak eskaini zituzten herritarrek eta kanpotik etorritako 80 artisau inguruk osatu zuten merkatuan elikagaiak, pitxiak, egurrarekin eta larruarekin egindako artisau lanak etab. jarri zituzten salgai.

Hilaren 21ean berriz, Nekazal Merkaturia izan zen Iturritak kalean. Tamaina txikiagoan bada ere, nekazal munduari lotutako tresnen eta lanen erakusketa izan zen eta goiz osoan zehar artisau azoka zabalik egon zen. Eguerdian urteroko moduan paella dastatzeko aukera izan zuten bertara hurbildu zirenek.



- 24 -

Aralarko baserri girotik Donostiara

Uztailean estreinatu zuen Juan Gorriti eskultoreak "Aralar Itsasmira" erakusketa Donostiako Miramar Jauregian. Irailaren 29ra arte egonen da ikusgai. Jauregiaren kanpoaldean nahiz barnealdean ehundaka lan koloretsu aurkeztu ditu. Erakusketa honen bitartez, baserri mundua, eta Aralarren txikitatik ezagututako lanabes, ohitura eta oroitzapenak islatzen ditu Oderizko eskultoreak.




CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
 ZURGINTZA OROKORRA
 INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
 Telefonoa eta Faxa: 948507343
 carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA
 Aralar kalea, 41
 Lekunberri

OGI BERRI
 OKIN ARTISAUAK 948604884

**AURRERA
 TABERNA
 ARALAR, 15
 948 60 47 24**

**TAXI
 SOROA
 609 168 217
 Bederatzi plaza**



Sega pikan

Risti, rasta, risti, rasta, raaasssst... Ze ritual politte den sega zorrozteana. Segapotoan sartu berrize arraitze, pixkoat busti eta risti, rasta, risti, rasta, raaasssst... Segan idea haundiik ez, ta lume da, ordea, nik oaingoan zorroztu dotena; ta risti, rasta betiko lata!

Euskea gora, euskea bera... Gurea, etxekoa... Euskea ta sega, konbinazio xeble antxa oaingoa, ezta?

Kanflanka eta Bereko elkarren kontra aittu zeen Askateko festetan, Naparroko segalari txapelketan. Eskubereakin Abetako zelai hartan gora ta bera ibiltze nitzen garaian hainbeste jende harrapatu banu ingurun...

Txuriz leitzarra, beltzez gorrittiarra. Mille koloren zalea, ordea, ni, eta ezin baten o bestean alde jarri. Biik launek. Bat eskola garaitatik, bestea etxekoa. Batek malla beltzak, besteak galtza mahonak ingurun. Biik hankutsik. Biik mingaiñe zorrotz; sega bezin zorrotz.

Apustu bat izan zen uztalkekoa, baño ispillu gixen hartu nahi nuke egoera hue. Etxeko euskea mantentzea etzelako eun bateko proba. Luzea beireko apustue da, ta ez nolana hikoia, gañea. Gure esku dau mantentzea o galtzea. Eta nik bintzet enuke nahi gure euskalkie liburutan gordea gelditzeik, bakarrik; sega apustuk bezalaxe, ikuskizun bihurtzeik; abestitako doinu polit o bertsotan betiketuk geatzeik, bakarrik.

Sega eunerokoa, bizimodu baten zati izatetik, ia ia ikuskizun izatea pasa da. Oaindak badee segaz mozten duen baserritarrak, baño baztarrak bakarrik. Iñor gutxi jartzea barroti berde ta zabalai beire sega bizkarrean dola. Eta etxeko euskalkikin hoixe pasatzeko arrixkun gaude. Lau baztarretan gelditzeko arrixkun.

Zorroztu sega, zorroztu mingaiñe eta jarri plazai beire. Horreatik jarri zattueta Askaateko zelai hartako ispilluei beire. Beittu ta jarri belarrie, bai Kanfranka bai Bereko; zorrotza duelako



sega, txorrotxa mingaiñe. Leitze ta Gorrittikoa arraitzek ongi txorroxue.

Oso berea due hizkera leitzarrak. Diezten lekue dieztela, ezoin dela're lekue o egoera, nabari da nongoak deen. Zar, gazte, neska, zein gizon, hitz erdiet esatea aski da "Ño, hau leitzarra da inondik e..." oartzeko. Dotore jazten due euskea soinean, izan malla, soineko eo gona motz; izan laukidun atorra, izan zapel beltz, izan ezpain gorri o galtxa motx.

Eztakit gure egoera, Mailopek biltzen gattun herritarron egoera holakoa ote den. Gure etxeko hitzek, hizkera, doinu kantari eta bukaera luzatuk galtzen ez ote deen ai iruittue dauket. Mahonetik mallata pasa ez ote gean. Mille koloretatik kolore bakarrea. Erdaan eragiñe izuarrie da, baño enaiz horren aparte joango. Lotsa emateigu etxeko modu hortan hitzeittea. Nola ba lotsa? Berexitasun hoitxek ematen die ta kolorea euskeai...

Eredu behar giñuke ondoko herrikoak; eredu behar giñuke leitzarrak. Eztot segan esango, Bereko ta bere motillek e earki aittu zeen ta. Eztot malla beltzetan esango, galtza mahonak baño eokigo gelditzen den galtzik ez delako mundun...

Eztot esango txuri, eztot esango beltz, ea bakoitze bere herriko milleka kolore ttiki hoiri eusteko gai gean...

GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-
LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA

urrutia
enea

etxeko hestekiak

LEKUNBERRI

OTXOTORENA
okindegia

ARRIBE

ADIII TLF BERRIA:
948 51 30 32

panaderia okindegia
GALBURU eco

Egurrezko labore ogi ekologikoa

Alde Zaharra 50 LEKUNBERRI 31870
948 50 40 42

Berrobiko bikoteak irabazi du Larraungo Frontenis Txapelketa

Ikasturte amaierarekin batera frontenis txapelketako finala jokatu zen uztaileko lehen asteburuan. Lekunberriko frontoian Berrobiko Arregi-Zubiria bikoteak 33-21 irabazi zion Irurtzungo Ramontxo eta Asierrek osatzen zuten bikoteari. 200 eta 100 euroko sariak eta bertako produktuak jaso zituzten. Zorionak!



Araxes Herri Kirol taldea Sanferminetan izan da

Joan den uztailaren 11n Iruñeko Sanferminetan Kadeteen Nafarroako Trontza txapelketan parte hartu zuten taldeko Josuk eta Joanesek. Sei bikotek parte hartu zuten guztira eta Araxeskoak bigarren postuan gelditu ziren.

Ondoren, Kimuen konbinada erakustaldia izan zen eta bertan Nafarroako txapelketako finalistak aritu ziren. Txapelketan hirugarren gelditu ondoren Iruñeko erakustaldian irabazle izan ziren. Zorionak!

Josetxo Urrutiak irabazi dute Nafarroako Gizonezkoen Ingude Txapelketa



Iruñeko Foruen Plazan jokatu zen uztailaren 12an, Nafarroako ingude txapelketa. Emakumezkoetan Iturengo Maika Ariztegik lortu zuen txapela eta gizonezkoetan aldiz Beteluko Josetxo Urrutiak.

Nafarroako Gizonezkoen Ingude Altxatze Txapelketan 18 kiloko ingudearekin minutu eta erdian altxaldi gehien nork egingo aritu ziren sei lagun. 84 altxaldirekin Josetxo Urrutiak irabazi zuen. Altxaldi bakar bateko aldearekin bigarren gelditu zen Berriozarko Imanol Martin.

Maratoia eta Maratoi erdia Plazaolan

Irailaren 11n bi kirol proba izanen dira Plazaola Natur Bidean. Orain arte egin ohi zen maratoi erdiarekin batera bigarren proba bat egingen da egun berean. 42 kilometroko proba Le-kunberritik Andoainera izanen da eta maratoi erdiak aldiz 26 kilometro izanen ditu eta Leitzatik Andoainera egingen da.

Antolatzaile eta sustatzaileek, uztailean Otietako natur parkean egin zuten bi proben aurkezpena. *Diversport* enpresa kataluniarra da proben antolatzailea. "Bide Berdeen Maratoia" izeneko proiektuaren baitan dagoeneko beste lau maratoi antolatu ohi ditu, Castellonen, Gironan, Madrilen eta Tarragonan.

Dagoeneko izen-emateko epea zabalik dago. 52 eurokoa izanen da proba luzean parte hartzeko eta 29 euro maratoi erdian ateratzeko.

Informazio gehiago: www.maratonviasverdes.com atarian.



Euskal selekzioaren aldeko mendi martxa Betelun

ESAIT euskal selekzioen ofizialtasuna aldarrikatzen zuen taldea zen. Hainbat jarduera antolatu zituen helburu horrekin; tartean, mendi martxa bat. Duela bi urte ordea, ESAIT taldeak amaitutzat jo zuen bere ibilbidea, baina proiektuko hainbat kidek aldarrikapenei eutsi eta mendi martxarekin jarraitzea erabaki zuten.

Hala, aurten gure eskualdetik pasa da mendi martxa. Leitzan hasi eta Betelun bukatu zuten ibilbidea, uztailearen 30ean. Hurrengo egunean, Betelu eta Zaldibi arteko bideari ekin zioten.

Arratsaldeko 17:00etan egin zitzaion ongietorria euskal selekzioaren aldeko mendi martxari Betelun, trikitilari eta txalapartariekin. Ondoren, poteoan ibili ziren, eta 19:00etan egin zuten ekitaldi nagusia plazan.

Euskal selekzioen aldeko aldarria plazaratu zuten eta inguruko elkarteek ere euren atxikimendua eman zioten proiektuari. Bertso saio bat eta oroigarri banaketa ere egin zituzten.

Amaitzeko, 75 lagun elkartu ziren elizako atrioan afaltzera. Aldarrikapena eta herri babes, mahai beraren bueltan.



Hostal Betelu

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Etorri eta on egin!

Erreserbak:
948513026
618557889

BETELU PNEUMATIKOAK

TAILER MUGIKORRA

NEUMATIKO ALDAKETA
ZULATZEEN KONPONKETA

Vicente Iriarte
T. 646 474 166
www.neumaticosbetelu.es

LARRAUN GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA

Gruas y Talleres LARRAUN s.l.

Lekunberriko industriagunea,
21. nabea
31870 Lekunberri
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356
Telefonoa: 948 507 229
Faxa: 948 507 281
gtlarraun@gmail.com

Ongi gosaltzen duzula uste al duzu?

Kaixo denoi! Hemen naiz berriro ere. Mailopeko uztailleko alean pixkat ezagutu ninduzuten eta orain irailetik aurrera zuei aholku eta informazio osasuntsu eta orekatua ematera nator. Iraila aldapa handiko hilabetea izaten da, udan oporrak direla, herriko jaiak, ospakizunak...elikadura alde batera uzten dugu eta kurtso hasieran jendeak proposamen asko izaten ditu: hobeto jan, pisua galdu eta beste batzuk lehen zuten elikadurara bueltatu. Edonola ere aldaketak, eta askotan, asko kostatzen direnak.

Dena dela, oraingoan landuko dudana gaia gosaria da, egunean zehar egiten diren otorduetako garrantzitsuena. Denbora daramat jendeak zer gosaltzen duen ezagutzen eta ez da behar den bezala egiten den otordua kasu asko eta askotan.

Ea ba, badakizu zergatik den hain garrantzitsua gosaria? Ongi gosaltzen duzula uste al duzu? Noizbait galdetu

al diozu zure buruari gosari osasuntsua egiten duzun? Eta zer nolako gosaria egin beharko zenukeen? Jarraian azalduko dizuet.

Osasuntsu eta aktibo egoteko ezin bestekoa da ongi gosaltzea. Otordu hau ez egiteak kalteak ekar ditzake, beraz gosaldtu. Elikadura osasuntsu bat eramateko oinarria izateaz gain, eguna ongi hasi eta gaixotasun batzuk ekidin ditzake, diabetesa esaterako, baita obesitatea ere. Goizeko lehen orduetan gutxi, gaizki edota ezer ez jateak nekatua eta ahuldua sentiaraziko zaitu, energiarik gabe eta zure metabolismoak mantsoago funtzionatuko du, ez da aktibo mantentzen. Beraz gosaltzeak duen lehen onura hori da, aktibo mantentzea, hurrengo otordura gose gutxiagorekin iristea eta energiagaz betea egotea. Gogoratu, zure gorputzak gosea pasatzen badu ondorengo orduetan jaten dena grasa moduan gordetzen da, erreserba moduan.


Gosariak gainera beste onura hauek ere baditu:

- Elikadura osasuntsu bat mantentzea, hau da, egunero behar ditugun bitaminak, mineralak, proteina, karbohidratoak eta lipidoak hartzea. Zure eguneroko gosariak zereal integralak baditu, fruta, proteinak (begetalak zein animalia jatorrikoak), oliba olio edota fruto sekoak, ez dituzu jango egunean zehar behar ez dituzun kaloriak, edo gutxiago izango dira behintzat.

- Pisua jaisten eta kontrolatzen laguntzen du. Zure urdaila beterik egongo da denbora gehiagoz, aseago, eta ez duzu hainbesteko goserik izango hurrengo otorduan, gutxiago janez. Gainera "pikoteo" ezagun horiek kontrolatuko dituzu.

- Errendimendu fisiko eta intelektuala hobetzen du. Zure gorputzak energia behar du, kotxe batek gasolina beza-





la. 8 ordu lo egin ondoren eta ezer jan gabe egon ondoren, gorputzak energia behar du. Gainera gosari orekatu batek glukosa odolean mantentzen lagunduko dizu, energia pixkanaka emanez. Honek denak fisikoki eta intelektuali adi egotea lagunduko du.

· Otordu hau orekatua bada zure kolesterola eta azukrea kontrolatuak egongo dira eta zure digestio aparatua erregularra izango da.

Gosari bat osasuntsua eta orekatua izan dadin, ondorengo elikagaiak ezin dira faltatu:

- Zereal integralak (ogia, zerealak...)
- Proteinak (begetalak edota animalia jatorrikoak): esnea, yogurra, gazta freskoa, arrautzak, soja esnea...
- Fruto sekoak, oliba olio, aguacatea, semillak...
- Fruta, zuku naturalak...

Hau irakurri ondoren espero dut zue-tako bakoitza pixkat bat kontzientzia-tzea elikadurak duen garrantziaz. Hurrengo atalean gehiago...

Hona hemen gosaltzeko aukera batzuk:

1: 2 Yogur +zerealak (oloa, espelta, quinoa, arroza) + sagar bat + intxaurrak + kanela. (Yogurraren orduz esnea, edari begetalak... erabil ditzakezu) + Te beltza, gorria, berdea...

2: Bi arrautzekin eginiko tortilla (barazki ezeberdinekin)+ Fruto sekoak + Ogi zati integral bat + Fruta + Yogur bat + Te beltza, gorria, berdea...

*Beste batzuen arazoa denbora izaten da, gutxi dutela, edota ez zaiela ezer sartzeko goizetan. Beraz hauentzako beste aukera batzuk daude, bezperan prestatu daitezke, lanera iristean jan edota jaiki eta denboratxo batera hartzeko. Batido ezberdinetaz hitz egiten nabil. Adibidez: Fruta bat edo gehiago + yogurra, esnea edo edari begetala+ zerealak+ fruitu lehorrak edo haziak (lihoa, sesamoa, chia...), hau dena batidorarekin txikitu eta hor duzu gosari goxo, osasuntsu eta orekatua eguna indarrarekin asteko.

AUTOZERBITZUA · ARRAINDEGIA
· HARATEGIA ·
PATXI GALARZA
Astelehenerik larunbatera
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00
Igande eta jaiegunetan
8:00 - 14:00
Irurtzun

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS
Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri



Zoriondu itzazu zure lagunak edo senitartekoak
Mailope aldizkariaren bitartez!

KuxKuxean



LIBE GARCIA AZPIROZ
Abuztuak 9, 2 urte.
Zorionak "pixpaju"!! Aita, amatxoa familia guztiaren partez muxu potolo bat.

HAIZEA ALDAREGIA BALDA
Irailaren 8an, urte 1.
Zorionak etxeko txikienari.
Txikiena ere handitzen hasi zaigula!
Muxu handi bat!!!



AMETS MARTINIKORENA IRAZU
Irailaren 23an, 10 urte.
Ondo ondo pasa zure eguna Amets.
Muxu bat Araitz, aita eta amaren partez.

MARIAN SARALEGUI BETELU
Irailaren 8an, 7 urte.
Zorionak Marian!
Ongi pasa zure eguna etxekoan partez.



AGURTZANE ALTUNA
Irailak 22.
Zorionak amatxo!
Eutsi irripar horri urte askoan!! Muxu haundi bat etxekoan partez.
Iñigo, Egoitz, Eneko eta Itxaso.



NATI GOÑI URRIZA
Irailaren 8an.
ZORIONAK AMONA!!!!
Ondo pasa zure urtebetetze egunean. Muxu pottolo bat Elene, Aner, Danel eta Arribeko familiaren partez. Asko maite zaitugu amona!

ELENE AGUIRREZABALA IRIARTE
Irailaren 15ean, 4 urte.
ZORIONAK PRINTZESA!!! Segi hain alai eta jator izaten. Ondo pasa zure egunean. Muxu pottolo bat aitatxo, amatxo eta Danelen partez.



MAIXABEL HUARTE MARTIJA
Abuztuak 30.
Urtebetetze berezia denez 50 muxu potolo zure iloben partez.



Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com

NEKAZARI, S.L.

Kubota
STIHL

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com

ANTONIO CARRARO



AMAIRU BAR

ETXKO PIZZAK,
KOPA BEREZIAK
948504352

Kantina Rock

KANTINA

bokatak, platerak eta...musika.....

948
60
48
21

TAXILON

661 202 249
(9 plaza)

E-posta: lotamendi5@gmail.com

Atallu - Araitz

Lontxo
Otamendi
Artola



iraila

4 Aresoko VIII. Mendi Martxa.

11 Plazaolako Maratoia eta Maratoi erdia.

18 Taloaren Eguna Leitzaan.

24 Gorritiko Gaztelura martxa. Irteera, 16:30ean Larraungo udaletxetik

25 Sagardo Eguna Lekunberrin.

16-18 Arruizko Festak.

agenda

AZKEN MUGA

Irailak 2, ostirala.

19:00 mugako eta inguruko historia hitzaldia Aranzadiko Alfredo Moraza historiagilearekin eta adineko bizilagunekin.

Irailak 3, larunbata. Bertso Eguna.

12:00 Bertso saioa Tolosaldeako Harituz taldearekin eta Larraungo Bertso Eskolarekin.

13:00 Txakolin dastaketa eta trikitixa.

14:00 Bertso-bazkaria eskualdeko bertsolari beteranoekin.

18:00 Erakusketa gunera bisita gidatua bertsolariekin.

19:00 Ekitaldi nagusia eta trikitilariak.

19:30 Kantaldia Mikel Urdangarin eta Estitxu Sistiaga.

Irailak 16, ostirala.

19:00 Eskualdeko kirolari buruzko historia hitzaldia.

Irailak 17, larunbata.

20:30 Kontzertua Trikizio plaza taldearekin.

Irailak 23, ostirala.

22:00 Argazki zaharren erakusketa.

Irailak 24, larunbata.

20:00 Kontzertua *Et Incarnatus* orkestarekin.

22:00 Egurrezko eskultura baten erretzea eta itxiera ekitaldia.

(Ekitaldi guztiak Zaraten izanen dira).

merkatu txikia

SALGAI

- Etxe bat salgai, Errazkinen. Interesaturik egonez gero deitu 605712750 telefono zenbakira.

- VPO pisua salgai Atallun. Bizitzera sartzeko prest. 90 m2ko bizitza, garajea eta trasteroa. 115.000€. 646179746 (Miren).

- Aurtengo intxaurrek salgai! 636856801 (Itziar)

ALOKAIRUAN

- Pisua alokatzen da Bete-lun, bizitzera sartzeko prest. 80m2-ko pisua altzariz hornitua. 690006283 (Mila).

- Bajera bat alokatzen da Betelun. 690006283 (Mila)

- Pisukide bila. San Juan - Donibane auzoan, Iruñea, ikasleentzako pisua partekatzen dut. Interesaturik bazaude deitu 618883126 / 948504468 zenbakira

LAN BILA

- Lekunberrin emakume bat prest edozein lanetan aritzeko: etxeko lanak, pertsonen zainketa, etxebizitzaren eta atarien garbiketa etab. Emilia Dimitrova: 602 420 473 / 948 60 48 93 / 679 053 368.

ADI!

Merkatu Txikian iragarki bat jarri nahi baduzu idatzi mailope@labrit.net-era.

ALLIKO
PESTA-
EGUNA
2016.09.03
(larunbata)

19.00 TAN KONTZERTUA
(FOLK-ROCK-RHYTHM&BLUES)

PETTI

23.30 AUERRERA GAUPASA

DJ Beñat Alberro



Jai Zoriontsuak!

Alliko Pesta-Eguna

Irailak 3, larunbata

12:30 Suziria eta bermuta

14:00 Herri bazkaria

16:30 Mus txapelketa

17:00 Haurrentzako jolasak

19:30 Petti-ren emanaldia (sarrera libre!)

21:00 Benduafari autogestionatua (denok gozatzeko, bakoitzak zerbait ekarri)

23:00 Gaupasa DJ Beñat Alberro-rekin

Baraibarko Festak

Iraila 29, osteguna

10:00 Festa hasiera

11:00 Meza nagusia

12:00 Puzgarriak

12:30 Hamaiketakoa

13:30 Aizkolariak

16:30 Puzgarriak

17:00 Pilota partiduak

19:00 Dantzaldia Mendiberrirekin

Irailak 30, ostirala

17:30 Puzgarriak

18:00 Umeak taloa egiten

20:00 Pintxo lehiaketa

Urriak 1, larunbata

10:00 Goiz soina txistulariekin

11:30 Puzgarriak eta umeen herri kirolak

14:00 Herri bazkaria

14:00 Dantzaldia Mendiberrirekin

17:00 Zezen mekanikoa: umeentzako

ikuskizuna eta tailerrak

17:00 Puzgarriak

18:00 Mus txapelketaren hasiera

19:00 Txokolatada

20:30 Zezen suzkoa

24:00 Dantzaldia Mendiberrirekin

03:00 Txokolatada

Urriak 2, igandea

10:30 Etkez etxeko erronda Amets Arza-llus eta Julio Soto bertsolariarekin

12:00 Puzgarriak

17:00 Pilota partiduak

18:00 Mus txapelketa amaiera

18:00 Puzgarriak

19:00 Dantzaldia Mendiberrirekin

20:00 Zezen suzkoa

Uitziko festak

Irailak 28 asteazkena

20:00 Txupinazoa

20:30 Dantzaldia

22:00 Aparia Merkualde elkarte

01:00 Dantzaldia

Irailak 29 osteguna (Mikel Donearen Eguna):

10:00 Auroroak

12:30 Meza Nagusia

13:00 Hamaiketakoa

13:30 Aizkolariak

16:00 Kafea eta pastak Merkualde elkarte

17:30 Toka lehiaketa

20:30 Dantzaldia

00:00 Dantzaldia

Irailak 30 ostirala (Gazte Eguna)

10:00 Marianittoa

11:00 Frontenis txapelketa azkarra

14:00 Gazteen bazkaria Merkualde elkarte

16:00 Umeen jokuak

20:00 Disko jaia DJ Fran Barrosorekin.

22:00 Aparia Merkualde elkarte

01:00 Disko jaia DJ Fran Barrosorekin.

Urriak 1 larunbata

09:00 Diana Txistulariekin

12:00 Mus txapelketa

12:30 Espuma festa (eguraldi ona badago)

14:00 Herri bazkaria Merkualde elkarte

16:00 Herri kirolak

20:00 Dantzaldia

22:00 Aparia Merkualde elkarte

01:00 Disko jaia DJ Fran Barrosorekin

Urriak 2 igandea

11:00 Umeen pilota partiduak

16:00 Puzgarriak

16:30 Txokolatada

17:30 Bertsolariak

20:30 Dantzaldia

00:00 Denak lotara!!

Pilota partiduak:

Osteguna, irailak 29:

-Benjaminak

-Oinatz Iriarte - Araitz Lorente

Iñaki Galartza - Aimar Saralegi

-Ongay - Lenitz Galarza

Xuban Armendariz - Azanza

Igandea, urriak 2:

-Benjaminak

-Hodei Ijurko - Ander Iriarte

Xabi Arrieta - Iker Ortiz

-Aimar Lansalot - Mariezkurrena

Olano - Eskudero